

Aljeriar iraultzaz historia txiki bat

Testua: Iraitz Urkulo

Argazkia: Txalaparta

Aljezairia askatuta / Txomin Peillen / Txalaparta, 2013



Apirilean aurkeztu zuen Txomin Peillenek bere azken lan: *Aljezairia askatuta* (Txalaparta, 2013). Dagoeneko 46 urte igaro dira idazle honek Gauaz ibiltzen dana izenburuko lehen liburua argitaratu zuenetik. Tarte horretan, Peillenek dozenaka liburu idatzi eta a genero guziak jorratu ditu, ibilbide emankorra eginez euskal literaturan.

Liburu berezia da *Aljezairia askatuta*. Alde batetik, Peillenen narratiba, saia-kera eta poesia testuak biltzen dira lan berean. Bestetik, testuok benetako gerta-karietan oinarritzen dira, areago, batzuk Peillenek berak biziakoak dira, 1960eko hamarkadan Aljerian soldaduska Osasun Zerbitzuan egiten ari zelarik. Hori da liburuaren gaia: Aljeniar hemak Frantziako kolonialismoaren aurka izan zuen borroka latza.

Aljezairia askatuta osatzen duten testuak lehenagotik argitaratuta zeuden. Liburuko zortzi ipuinak, esaterako, Egon eta Saiook aldizkarietan agertu ziren, 1982an Hordago argitaletxeak horiek bildu eta liburu batean argitaratu zi-tuen arte. Hortaz, berrargitalpen honen bidez, Txalapartak aspaldi agortutako lan honetaz berriro ere gozatzeko aukera ematen digu, Joseba Sarrionandairen esku utzita edizioaren apailtze-lanak eta hitzaurrea.

Zortzi ipuin labur dira obraren ardatza. Denek hurbiltzen gaituzte aljeriar iraultzara, fikzioaren bidez orduko giro gatazkatsua berreraikitzea eta autoreak garaia hartako bizipen eta oroitzenaren islatuz. Zortzi istorioetatik bost aljeriarren ikuspuntutik kontatuak dira, eta gainerako hirurak, aldiz, ikuspuntu europarretik. Ez du Peillenek biderik errazena aukeratu eta herri zapalduren, hots, aljeriarren alde erabat lerratutu. Egia bilatzeko ahalegin zintzoa ezkutatzen da muturreko ikuspegi bien arteko txandaketaren atzean.

Balio literarioa baino gehiago, herri arrotz baten errealitate historikoaren lekukotasun gisa balio handiagoa aitor-tzen diot liburuari. Zentzu horretan, oso interesgarria deritzot saio atalean Aljeriako antolamendu soziopolitikoa, chi-



Aldjezairia
askatuta

TXOMIN
PEILLENEK

“ Txomin Peillenek 1960ko hamarkadan Aljerian egin zuen soldaduska, bertako biztanleak Frantziako metropolialarekin errukirik gabeko borrokan zeuden bitartean. Borroka hori da liburu honen muina eta ardatza; Aldjezairia kolonialismoaren a-

tzaparretatik libratzeko egiten ari den ekinaldi bortitza ”

turak, gerraren egunerokoa... azaltzeari. Izen ere, *Aldjezairia askatuta* lanak balio-sistema erabat ezberdina ezagutarazten digu. Esaterako, ipuinotan emakumearen tokia zein den aztertuz gero, une-

oro gizonaren menpekoztatutu dela kontura gatzek.

Egitura diktomikoa ezarni die Peillenek ipuinei, bi osagaien kontrajarpenean bikain funtzionatzen duena: europear vs. aljeriar, aberats vs. txiro, gizon vs. emakume, zapaltzaile vs. biktima, etab. Edozein modutan, bando bietan heriotzaren mehatxua nonahi topa daiteke eta sufrimendua da nagusi. Gainerakoan, badira errealitateari atxikiak zein fantastikoagoak diren istorioak, baina gehienak amaietako erustekoan bat dator.

Aitortzen dut, bestalde, ez diodala lan honek erakusten duen genero txandaketari neurria hartu. Batasun falta nabaria da eta testuak batera argitaratzeko idatzi ez zirela, agerikoak; esaterako, saio-pasarte batetik bestera zein ipuinetatik siora, zenbat gai eta elementuerrepikatu egiten dira, lehenagotik adierazitakoari exer berrinkgehitu gabe.

Narratibako bilduma batean kaleratu arren, *Aldjezairia askatuta* obrak kronika eta testigantza lanen apalean du tokia. Asmoa, Peillenen hitzetan, “Aljeriar iraultzaz historia txiki bat” eskaintzea bada, helburu didaktikoa fikzioari galentzen zaiolako seinale. Noski, hau ipuinetan baino askoz errazago ikus daiteke saio atalean, non historia dokumentatua (bibliografia aipatua eta guzti) eta lehen pertsonan idatzitako kronika-paragrafoak txandakatzen diren.

Aurreko argudioari bueltatu emanet gero, hau da, *Aldjezairia askatuta* fikzio liburutzat aintzat harturik, saio atalak ipuinak azaltzen dituelako sentipena nagusitzen zait. Izen ere, saioekin batera argitaraturiko ipuin hauiek ja-torian gozatu zuten askatasuna galdu dutela iruditzen zait, jada ez dira bereganak eta ez daude irakurleon interpretazioa zabalk, saioen txanda iritsitakoan errealitate historikoaren kronikak justifikatu, azaldu eta osatzen baititu. Nire ustez, testu ondoko azalpenek ez diote sekula testuari onik egiten, irakurlea baldintzatu eta interpretazioari mugak jartzeko batizkiote. Hortik liburu hau ez fikziozkoen artean kokatzeko nire gomendioa: errealitatearen aurkako gudan fikzioa galtzaile ateratzen denean, testigantza, kronika edo historia obra gisa lortzen dudako garaipena.